



Murok eguneroko bizitzan erabilitako tresnak moldatzen ditu.

# Maurizio Elizalde txistulari eta biltzaile baztandar handia hil da

Merezi zuen omenaldia irailan jasota, atzo goizez hil zen Arizkunen

**M**aurizio Elizalde hil egin da. Amaiurren jaio eta Arizkunen bizi izandako baztandar txistulari eta folklore biltzaile handia atzo goizeko 9.00ak aldera hil zen Arizkunen, 77 urte zituela. Hainbesteri ez bezala, Elizalderi bere lanaren onespina heriotza baino lehenago iritsi zaio. Izan ere, lehengo urteko irailan merezi zuen omenaldia jaso bait zuen Felix Iriarte atabalariarekin batera, Arizkunen bertan egindako saio gogoangarrian.

JOXAN OIZ / DONOSTIA

Maurizio Elizalde Etxeberria Amaiur herriko Lizundegiko Borda baserrian jaio zen 1915 urteko irailaren 21ean. Irailaren 22an, baina 1991. urtekoa, Elizaldek Felix Iriarterekin batera Euskal Herriko Txistularien Elkarteke Urrezko Domina jaso Arizkunen. Musikaldi, dantzaldi, hitzaldi eta oroitzapenez beteriko egitarauak Euskal Herriaren esker ona erakutsi nahi izan zion txistu, dantza eta euskal folkloreaken alde egindako lana miretsi asmoz. Txistularien Elkarteke aldizkariak ere ale monografikoa eskaini zion orduan bere iharduera eskertu eta konstatatu asmoz.

Hamaika urte zituela ekin zion txistu ikasi eta jotzeari Maurizio zenak, Antonio Elizalde Iriarte aitaren eskutik. Antonio Elizalde bera txistulari aparta izateaz gain lan eskerga egin zuen Aita Donostia eta Aita Olazararekin batera folklorea salbatzearen.

Harrez geroztik, aitarengandik jasota, Mauriziook desagertzeaz zeuden doinu eta pieza bilketariarena egin zuen. Hasieran denak buruz ikasita, gero grabatu egin zituen behir betikoz gorde zitezkeen. Lan hori egin izan ez balu zientoka doinu desagertuta leudeke dagoeneko. Adibide argia Baztango *Mutil-dantzarena* da.

**XVII-TIKAKO ESKOLA MANTENDU** Elizaldek egun ezagutzen diren 15 bat aldaki berreskuratu bait zituen.



Elizalderen lanak XVII mendetik zetorren usuarioa salbatu du. MOKOROA

✓ Aitak, Antonio Elizaldek, erakutsitako bideari eutsi zion eta 11 urte zituenez geroztik txistulari izan zen.

Jose Inazio Ansorenak EGUNKARIARI adierazi dioenez, «Elizalderen lana ikaragarria izan da; garrantzitsuena gainera zera izan da: berak XVII mendetik zetorren tradizioa jaso eta iraunderazi du gaur egun arte, baina euskalduntasunaren ildotik; berak egin duen eskola oso

modu onean egin da eta horri esker bizi-bizi dirau eta irauango du».

Maurizio Elizalderen arimaren aldeko hileta elizkizunak gaur izango dira Arizkunen eguerdiko 12.00etan. Ehorzketa, berriz, datorren asteartean izango da arratsaldeko 5.00etan.

## Javier Muroren eskultura lanak ikusgai Amaiur Gazteluko aretoan

AINHOA ARROIABE / IRUÑEA

Javier Muroren eskultura erakusketa ikusgai dago Iruñeko Amaiur Gazteluko kultur aretoan, lehengo ostegunaz geroztik. Erakusketak apirilak 30 bete arte irauango du zabalik eta bertan biltzen diren hamairu arte lanak, «eskulturak baino gehiago, ideien materializazioa dira» egi-learen esanetan.

Nafarroako Gobernu Kultura eta Hezkuntza Sailaren Sormenarako laguntzak izeneko programaren barruan kokatzen da ekitaldi hau. Muro, Nafarroako Gobernuaren eskutik 1991n jaso zuen diru laguntzari esker aritu da urte batez bere arte lanen bilduma prestatzen.

Artista autodidakta da. 1989an «Iruñeko Artista Gazteen» saria irabazi zuen, 1990ean berriz. Espainiako Estatuan antolatzen den Arganda Hiria izeneko eskultur lehiaketan hautatua izan zen eta, urte berean, Iruñeko Gotorlekuaren Armen gelan erakusketa bat burutu zuen.

Muroren lanak eguneroko erabiltzen diren objektuen eraldaketa dira. Honela, telebista, makila, paellontzi, lapiko eta antzeko

tresnak, moztu, kolatu eta margo-tu egiten ditu irudi berriak sortuz. «Eguneroko objektuen izkutuko errealitatea isladatzen saitzen naiz, horretarako itxuraldatzen ditut».

**ARTEA UME JOKU GISAN** Berarentzat artea umeen jokua da, «ikusitako makusi, zer ikusi?» lau hitz hauetan oinarritzen da sortzerakoan «Joku dibertigarria da, bai umeentzat, bai niretzat». Bere eskultura metaforikoak mintzairarekin jolasten dute, «ahokorapiloak» dira.

Eskulturen artean, 'Bizitza hamar segundutan' bastoi-jokua, 'La Venus del Nilo' (Niloko Venusa) kultura ezaren ironia, 'Balompie' (Futbola), 'Silla de montar' (Muntatzeko zela) eta 'Rueda de prensa' hitz joku korapilotsuak dira aipagai.

Bestetik erakusketa honetan artistaren tendentzi aldaketa nabaritzen da. 1991. urtean egindako erakusketan, eskultura minimalistak txuriz margoztutak agertzen ziren, aurtengoan ordea, gorri edo beltzez koloreztaturik daude. Murok, aldaketa justifikatzeko «berotasuna adierazi beharra zuela» esan du.

## IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

31 x 10 mm

EGUN BAT 480pta/21l  
ASTEBETE 2.400 pta/104l  
BI ASTE 4.100 pta/180l  
HILABETE 6.300 pta/275l

31 x 15 mm

EGUN BAT 960 pta/42l.  
ASTEBETE 4.750 pta/208l.  
BI ASTE 8.300 pta/360l.

ALTA  
MONPAS  
ORTZADAR  
RIKARDO ARREGI  
euskaltegiak  
DONOSTIA - ERRETERIA  
ALTA herria - 39 43 77  
MONPAS - 27 27 11  
ORTZADAR - 52 66 57  
URUMEA  
R. ARREGI - 46 46 55

31 x 33 mm

31x33  
MODULO

EGUN BAT 1.925 pta/84l  
ASTEBETE 9.550 pta/416l  
BI ASTE 16.550 pta/720l  
HILABETE 23.250 pta/1.010l

31 x 33ko  
BI MODULO

EGUN BAT 3.850 pta/168l  
ASTEBETE 19.100 pta/832l  
BI ASTE 33.100 pta/1.440l  
HILABETE 46.500 pta/2.200l

31 x 33ko  
LAU MODULO

EGUN BAT 7.725 pta/336l  
ASTEBETE 38.300 pta/1.664l  
BI ASTE 66.250 pta/2.880l  
HILABETE 92.900 pta/4.040l